

I. taldea

Nola, zergatik eta zein helburuarekin uste duzu sortu zela Kilometroak?

Jatorrian, egia da, Kilometroak antolatzeko zegoen xede nagusia dirua lortzea zen. Hala ere, horrekin batera bazegoen beste kezka bat: jai giroaren bitartez euskal hezkuntzaren aldarrikapenarekin komunitate bat, mugimendu bat sortu nahi zen. Eta egin daitekeen balantzea benetan positiboa da: Kilometroak euskaldunen, euskal kulturarekin atxikimendua erakutsi nahi dutenen elkargunea da.

Ikastolak eraikitzeke zegoen beharra ere metafora bat bazen. Eraikinarekin batera Euskal Hezkuntzaren sistema eraiki behar zela irudikatu nahi zen, eta dirua ematen zuen bakoitzak argi zuen ez zela bakarrik “ladrilluak” erosteko, horren atzean bazegoela garai horretan administrazioak erantzuten ez zion borroka batekin konpromisoa: Euskal Hezkuntza Sistema.

Kilometroak jaia 1977. urtean zegoen giro sozio-politikoaz baliatu zen: militantzia; auzolana; gauzak berriak sortzeko gogoia; ... hitz batez, gauza berriak eginez urte ilunetatik ateratzeko ilusio handia zegoen.

Kilometroak ikasturtearen hasieran egiten da bi arrazoi nagusiengatik: batetik praktikotasunagatik. Ikastolen dinamikari begira ikasturtearen hasiera garai hoberena zen gurasoak, irakasleak, ... honen antolakuntzan denbora eskaintzeko. Bestetik, gogoratu behar da 1977.urtean antolatzen dela lehen edizioa (Franco hil eta bi urte ondoren). Ordura arte urtero urriaren lehenengo igandearekin Aizkorriren magaleko Urbiako zelaietan festa abertzalea antolatu ohi zen eta, frankismoaren amaierarekin, Kilometroak sortu zuten lehenengoek dinamika horri jarraipena ematea erabaki zuten, hortik aurrera hizkuntza, kultura eta ikastolaren aldeko aldarrikapena eginez.

Testuinguru politikoak ez zuen alternatibarik eskaintzen, eta Ikastolek herriak behar zuen hezkuntza sistema nazionala irudikatzen zuten. Administrazioek ez zuten nahi, edota ez ziren gai, herri aldarrikapen horri erantzuteko eta Kilometroak jaiak, hasiera batean, bazuen “anti sistema” zantzu berria. Gainera, garai horretan eskaintzen zen heziketa eredua zein Kilometroak jaiaren eredua ere, oso berritzaileak ziren.



Hori dela eta, gure herrian egon den hedapen administrazioaren ondorioz, Kilometroak jaiak hastapenean izan zituen helburuak berdinak izaten jarraitu badira ere, herriarekiko zuen sustraiak ahultzen joan direla esan daiteke. Egun baloreak baino irudiak du garrantzia, eta pertsonen iritzia ere irudien erritmoen abiadurarekin aldatzen joaten da. Horren atzean ere badago Euskal Instituzio nazionalaren gabezia.

Zein da gure komunitatearen ezaugarria? Kilometroak-en hastapenean ez zegoen zalantzarik: Kilometroak erdararen asimilazioaren aurrean jai abertzalea zen, horrek ematen zuen komunitatearen sentipena. “Zerbaiten partaide sentitzen nintzen”. Komunitatea izateko oinarrian nortasun kolektiboa badago, egun gure nortasuna zein den aztertu eta definitu beharko genuke.

Egun jaiak dimentsio handia hartu du eta herriaren bat-batekotasuna asko ahuldu da. Ia esan genezake jai “prefabrikatua” dugula. Errealitate horretan bai partizipazioa, baita elkartasunaren kontzeptuak zalantzan jartzen dira. Lehen konpromisoa zen jarrera nagusia; orain dibertitzea. Aisialdiaren ideia, beraz, asko aldatu da eta gure denbora askean egiten ditugun gauzak gero eta “arinagoak” dira; konpromiso gutxiko gauzak, alegia.

Publifikazioa inflexio puntua izan zen, eta gure jatorriaren kontakizuna aldatuta edota galdua geratu da. Baina Ikastolek “gure herriko plazetan” egoten jarraitzen dute, hezkuntza eragileak gara eta horrek herriarekiko inplikazio handiagoa eskatzen du (orekatu harreman instituzionala eta herrigintza).

Kilometroak jai 40 urte betetzear doa eta inoiz ez dio bere ospakizunari kale egin. Zoritxarrez urtetik urtera Kilometroak antolakuntzan dabilen jendearekin harremana galdu egiten da. Fenomeno hau izan daiteke ere komunitate higituaren sentipena; Kilometroak ikastola batetik bestera pasatzekoan jende harremanetan berriro zerotik hasteko joera izaten dugu. Kilometroak-ek ez du giza sarea ehuntzeko gaitasuna izan.

